

# 1. BALOREZKO PROPOSAMENA:

Zer eskainiko dugun edo zer arazo edo behar konponduko dugun definitzea garrantzitsua da produktu bat merkatura atera baino lehenago. Gure balio-proposamenaz ari gara. Gure enpresak bere bezeroei eskaintzen dizkien onura-multzoa da.

Balorezko proposamenean datza bezeroek gure enpresaren, eta ez beste baten, alde egiteko arrazoi nagusia. Gure produktuko elementu nagusiak ondorengoak dira:

1. Nobedadea: Gure kasuan objektu berri bat sortzen dugu gure merkatuan, gizarteko kide guztiek beti dute argazki bat beraien etxean, guk argazki hori panpin moduan edukitzeko aukera ematen dugu. Egia da nola ez den gaur egungo bizimoduan behar bat asetzen duen premia bat, baina gure produktuak destakatu egingo du ez dagoelako horrelako produkturik merkatuan.
2. Pertsonalizazioa: Gure produktua kasu honetan pertsonalizazio definizioa guztiz betetzen du, izan ere, bakoitzak pertsonalizatu dezake, zure argazkia panpinera igaro ondoren, gorputza modifikatzeko aukera edukiko duzu. Honen emaitza zure itsurako eta zuk nahi duzun gorputz pertsonalizatuko panpina eduki ahalko duzu. Pertsonalizatzeko gaitasun honek, bezeroei beren indibidualtasuna adierazteko eta beren nortasuna islatzen duen produktu bakar bat sortzeko aukera ematen diela aipatu daiteke.
3. Diseinua: Panpin ez oso handiak izango direnez etxeko edozein lekuetan ezartzeko aukera ematen dizu. Lekuetara eramateko erraza eta opari moduan emateko ez dituzu zailtasunik izango.
4. Prezioa: Gure produktuan prezioa ez da izango oztopo bat bezeroentzako izan ere, prezioa edozein familiko ekonomia mailara egokitua izango da.

Gizarteko arazoei dagokionez, alde batetik, plastiko birziklagarria erabiliko genuke gure produktua egiterakoan, honek gaur egungo berotze globalean lagunduko genuke.

Bestalde, gure proiektuetan lan egiten dugun bitartean, garrantzi handia ematen diogu gizartean dagoen "gorputz perfektuaren estetikari", hau da, kontzeptu hori gure produktuetan hausten saiatzen gara, nahi duzun bezala alda dezakezulako. Panpinak nahi badituzu, milaka gorputz forma sortzeko aukera emango dizu. Azken batean, gure produktuen panpinak ez dira egungo panpin komertzialak bezalakoak, kontzeptu hori alde batera utzi eta panpina bakoitza dena izatea bilatuko dute. Uste dugu garrantzitsua dela gai hau gizarte mailan sendotzea.

Laburbilduz, gure produktuak laguntza ekologiko eta sozial handia egingo du.

